


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,4 igo dira 2025eko otsailean

Urte arteko datuei dagokienez (2025eko eta 2024ko otsailekoak) prezioak % 1,6 igo dira.

2025eko otsailean, Eustaten datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,4 igo da, aurreko hilaren aldean. 2024ko hil beraren aldean, kostuak % 1,6 igo dira.

Eraikuntzaren kostuak % 0,3 igo dira eta Ingeniaritza zibilarenak % 0,5. 2024ko otsailaren aldean, prezioak % 1,6 igo dira Eraikuntzan eta % 1,7 Ingeniaritza zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

2025eko urtarrilaren aldean, **lehengaien** kostuak % 0,5 igo dira eta **eskulanarenak**, berriz, egonkor mantendu dira. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostuak % 2,1 egin du gora eta eskulanarenak % 0,4.

Lehengaien kostuak % 0,5 igo dira hil artean Eraikuntzaren sektorean eta % 0,7 Ingeniaritza zibilarenean. Urte arteko bilakaeran, lehengaien kostuak % 2,1 igo dira Eraikuntzan eta baita Ingeniaritza zibilean ere.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2025

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	121,5	0,4	1,6
Eraikinak	121,4	0,3	1,6
Ingeniaritza zibila	122,4	0,5	1,7
Lehengaiak	123,3	0,5	2,1
Eraikinak	123,1	0,5	2,1
Obra zibila	124,2	0,7	2,1
Laneskua	116,9	0,0	0,4

Oinarria 2021=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Martxoaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengai nagusien prezioek 2025eko otsailean izan dituzte igoera handienak, 2024ko otsailaren aldean, honako azpisektore hauetan: *Produktu metalikoen fabrikazioa, makinak eta ekipoak izan ezik* (% 4,6) eta *Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa* (% 4,4). Bestalde, Koke-lantegi eta petrolio-findegietako lehengaien kostua % 8,8 jaitsi da.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Otsaila 2025

	m / m-12
Ateratze-industriak	3,4
Kokeak eta petrolio fintzen	-8,8
Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	1,3
Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu	4,6
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	4,4

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Martxoaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62